



8 LAN-DUINA ETA 8 HAZKUNDE EKONOMIKOA



HELBURUA:


Guztiantzako hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea

8. GJHk lehenetasunezko gai hauek biltzen ditu: enplegu osoa eta produktiboa, eta lan duina emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira

- Zarauzko establezimendu eta enpresak eta udalerrian sortzen dituzten lan aukerak
- Turismoa
- Biztanleriaren baliabide ekonomikoak, lana eta lan-baldintzak
- Langabezia
- Enpresak eta kalitatezko enpleguak sustatzeko programak eta zerbitzuak


Garapen Jasangarrirako **8. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJHekin ditu lankidetzat eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Zarauzko establezimendu eta enpresak eta udalerrian sortzen dituzten lan aukerak

Jarraian Zarautzen dauden **establezimendu eta enpresen bilakaeraren** analisia egiten da, izan ere, bilakaera hau udalerrian egoera ekonomikoaren egoeraren adierazgarri baita, udalerrian dagoen lan aukerei dagokionez.




Zarauzko enpresa sareak beherakada bizi du azken urteetan. Zehazki 2020. urtean 123 establezimendu gutxiago zeuden.

Iturria: Eustat (Jarduera ekonomikoaren zerrenda)

LAN-DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA


Establezimendu berrien sorrera tasari dagokionez, hau da 1.000 biztanleko urtean sortzen den establezimendu berri kopuruak, 2017. urtean balio altuena lortu zuen, 7,6koa izanik. Establezimenduen saldo garbia, zeroren azpitik kokatu da 2010. urtetik aurrera. 2020an lortu da azken 5 urteetako baliorik txikiena.

Establezimenduen saldo garbia eta sorrera-tasa (% biztanleko)



Iturria: Udalmap

Establezimenduak sektoreka - 2020




Aipatzekoa da Zarautzen **hirugarren sektorea dela pisu handiena duen sektorea**, establezimendu kopuruari dagokionez. Era honetan, 2020. urtean Zarauzko hamar establezimendutik ia 8 zerbitzu sektorekoak dira.

Iturria: Udalmap

Azken urteetan **zerbitzuen sektoreak presentzia irabazi du**. Lehen sektoreak ere gora egin du, baina askoz ere garrantzi gutxiagorekin. Hala ere, industria-sektoreak eta eraikuntza-sektoreak pisua galdu dute.

Establezimenduen bilakaera sektorearen arabera




Iturria: Udalmap

LAN-DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Enpleguari dagokionez, ere, eta 2020ko azken datuek diotenez, Zerbitzuen sektorea zen nagusi Zarautzen, lanean ari zen biztanleriaren %72a okupatuz. Industriak ordea, establezimendu kopuruaren kasuan baino pisu handiagoa hartzen du, lanean ari den biztanleriaren %22a metatuz.


Zarauzko enpresen tamaina oso txikia da, oro har, 2020an, industria-establezimenduen batez besteko tamaina 9,16 langilekoa zen; Gipuzkoakoa, berriz, 16,54 langilekoa zen establezimendu bakoitzeko, eta 16,33koa EAEn. 2020an, Zarauzko mikroenpresek enpleguaren % 47,08 sortu zuten; Gipuzkoan, % 33,91; eta EAEn, % 33,1.

Udalerriko dinamismo ekonomiko aztertzeko Barne Produktu Gordina (BPG) hartzen da kontutan, besteak beste, zeina udalerrian bertan dauden enpresek sortzen dituzten ogasun eta zerbitzuen batura den.




2018an, ezagutzen den azken datua, Zarautzek biztanleko Barne Produktu Gordinaren (BPG) balio maximoa lortu zuen, 29.201 €-rekin. Balio hori Gipuzkoakoa (35.915,00 €) eta EAeko (35.21,00 €) baino txikiagoa da.

Iturria: Udalmap



Azken urteetako bilakaerak erakusten duenez, krisiaren ondorengo urteetako balio minimoen ondoren, 2016. urtetik aurrera BPG berreskuratzen hasi zen, baina aurreko balioak lortu gabe.

Iturria: Udalmap



Sektoreen Balio Erantsi Gordinari dagokionez, nabarmentzekoa da zerbitzuen sektoreak guztizko balioaren % 75,30 ematen duela, eta balio hori Gipuzkoakoa (% 64,93) eta EAeko (% 69,38) baino handiagoa da. Nabarmentzekoa da, halaber, eraikuntzaren sektorea, establezimendu kopuruaren eta enplegatu kopuruaren arabera industria-sektorea baino askoz txikiagoa bada ere, Balio Erantsi Gordina nahiko altua dela, Gipuzkoakoa (% 6,16) eta EAeko (% 5,86) baino handiagoa.


Iturria: Udalmap

Turismoa

Aipatzekoa da turismoak, ekonomiaren eragile gisa Zarautzen duen garrantzia.

Azken urtetan Zarauzko bisitarien kopurua nahiko egonkor mantendu bada ere 40.000 bisitari inguruan (Turismo bulegoan eta Malekoiko informazio puntutik pasatzen direnak), aipatzekoa 2020 eta 2021 urtetan eman den beheraka. Bulegoetatik pasatu diren bisitariak direla kontuan hartuz, beherakadan honetan eragina izan dute batetik osasun pandemiaren ondorioz eman diren mugikortasun mugak eta bestetik, Malekoiko informazio puntua ireki ez izana.

Bisitarien jatorriari dagokionez, gehiengo estatukoak dira, nahiz eta 2020ean herritarrak izan diren turismo bulegotik pasatu direnen gehiengoak (pandemiak kanpoko pertsonen mugikortasuna mugatu baitzuen). Estatuko bisitarien artean gehiengoak Kataluina eta Madrilgoak dira eta atzeritarren artean, Frantziarrak.



Iturria: Zarauzko Udala

Zarauzko turismo sektoreak enpleguan duen inpaktua oso handia da baita ere. Eustateko datuen¹ arabera, 2020 urtean turismoari lotutako establezimendu kopurua 194 izan zen, hau da, Zarauzko establezimendu guztien % 10,72. Establezimendu hauek 728 enplegu eman zituzten, hau da, Zarauzko enpleguen %10,53.

Hori dela eta, sektore turistikoa profesionalizatu eta kalitatezko zerbitzuak sustatzea da helburu nagusietako bat. Helburu honekin, **Zarauzko Turismo Plan estrategikoa** garatu zen 2017an VICE eredu berritzailea oinarri hartuz. VICE erdua tokiko ohitura eta kultura kontuan hartzen eta balioesten dituen turismo-eredua da eta ondorengo alderdiak jorratzen ditu:

- **Zarauzarrak**

Bisitari eta herritarren arteko oreka eta elkarbizitza sustatzea da helburu nagusia, herritarrak Zarautzen turismo sektoreak duen garrantziaz jabetuz, baina baita komunitateak dituen kezak kontutan hartuz ere. Hemen erabilera turistikoko etxebizitza pribatuen arazoari irtenbidea ematea jasotzen delarik baita ere.

¹ Datu hauek emateko kontuan hartu diren jarduerak hauek dira: hotelak eta antzeko ostatuak, turismo ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk, kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak, jatetxeak eta janari postuak, aldeztu aurretik prestatutako janariaren hornidura ekitaldietarako, edari establezimenduak, bidaia-agentzien jarduerak, beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin uztartutako jarduerak.

- *Turista edo bisitariak*
Orain arteko eta erakarri nahi diren bisitarien profila oinarri hartuz, eskaintza turistikoa egokitzea eta ezagutzera ematea, teknologia berriak ere barneratuz.
- *Bertako turismo enpresak*
Turismoarekin lotura duten enpresen beharrak eta kezkak ezagutu eta hauei erantzun. Besteak beste:
 - o Ostalaritza sektorearen babesa eta sustapena. Horretarako tresna baliagarria izan daiteke "Zurekin" ostalarien elkarte.
 - o Zarauzko komertzioaren indartzea eta sustapena, "Murkil" dendarien elkarte ere baliagarria izan daitekeelarik.
- *Ingurunea eta kultura:* turismo eredu inklusibo, irisgarri eta jasagarria sustatzea, Zarautzek dituen nortasun eta kultura propioak babestuz, zainduz eta bisitariak honen parte eginez.

Aipatzekoa da Zarauzko udalak urteak daramatzala turismo jasagarria sustatzen. Turismoak garrantzi handia izan du Zarauzko garapenean eta udalak aspalditik argi izan du garapen turistikoa egokiena herritarrei onura ekartzen dien hori dela eta horren alde lan egin du. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da turismoarekin jasagarritasun soziala lantzea baita ere. Gaur egun ildo honetan egitasmo xumeak garatu badira ere, poliki-poliki ildo honetan aurrera pausoak ematea da helburua.

Honen harira, **Zarauzko Turismo bulegoak Kode Etikoa** definitu du eta zigilua jaso du, zeinetan 8 printzipio nagusi zehazten diren:

- Turistak ulertu eta errespetatzen lagundu
- Berdintasuna, gizarteratzea eta aniztasunerako tolerantzia
- Jasagarritasuna
- Bertako tradizioaren eta kulturaren sustapena
- Gizartearen kultur ondarea zaindu
- Bikaintasuna eta profesionaltasuna
- Pertsonen eskubideak errespetatu
- Tratu egokia eman sektoreko langile eta enpresei


Biztanleriaren baliabide ekonomikoak, lana eta lan-baldintzak

Biztanleriaren baliabide ekonomikoei dagokionez, Zarauzko biztanleriaren errenta-mailari dagokionez, eta azken datuen arabera, 2019an batez besteko errenta pertsonala 25.254 €-koa zen, eta familia-errenta 53.215 €-koa, errenta pertsonalaren bikoitza baino handiagoa. Errenta pertsonalak eta familiarrak bilakaera bera izan dute, eta 2019an lortu dituzte balio maximoak;

Gipuzkoako eta EAeko datuekin alderatuta, Zarauzko errenta pertsonala eta familia-errenta handiagoak dira; zehazki, errenta pertsonala Gipuzkoako batez besteko pertsonala baino % 6 handiagoa da, eta alde hori are handiagoa da EAeko batez besteko errenta pertsonalaren kasuan, kasu horretan Zarautzekoa baino % 10,5 handiagoa baita.


LAN-DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunei dagokienez, ikusten da emakume hartzaileen kopurua gizonena baino askoz handiagoa dela. Azpimarratu behar da, oro har, EAEn ikusitako datuak baino askoz txikiagoak direla.



Iturria: Udalmap. Atzerritarren batez bestekoa (Gipuzkoa eta EAE) 2020 urtekoak dira)

Ekonomiaren egoera aztertzeke esanguratsua den beste adierazleetako bat **biztanleria aktiboari** dagokiona da, zeinak lan egiteko adinean dauden pertsonak, ordaindutako lanpostu bat dutenak edo izan nahi dutenak kontsideratzen dituen (ez dira sartzen ordaindu gabeko jarduerak dituztenak).



Azken urtean, Zarautzen biztanleria aktiboaren adierazlea nahiko egonkor mantendu da, EAEko antzeko baloreetan, hemen ere emakumeen portzentajea gizonetzkoena baino txikiagoa delarik.


Iturria: Udalmap

Zarauzko jarduera tasa **%49 zen 2020. Urtean; Euskadiko tasaren maila berean kokatuz (%48)**. Datuak generoaren arabera aztertuz gero, ikusten da gizonen jarduera-tasa emakumeena baino handiagoa dela. Joera horrek ez du aldaketa handirik erakusten azken urteetan. Proiekzio demografikoek adierazten dute etorkizunean biztanleria aktiboa nabarmen murriztea eta zahartzea espero dela.

LAN-DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Lanean ari den biztanleriari dagokionez, hau da biztanleri okupatua edo jarduera ekonomikoren bat egiten ari den herritar taldea (soldatapean edo langile independente gisa), azken urtetan ez da aldaketa nabarmenik sumatzen.

Lanean ari den biztanleriaren bilakaera (%)




Zarauzko okupazio tasa %53,7koa zen 2020.urtean, EAEko tasaren goitik kokatuz.

Sexuaren araberako azterketak argi uzten du ezberdintasunak nabarmenak direla, nahiz eta denboran zehar sexuaren arteko aldea murriztuz joan den, emakumeen enplegu-tasa gizonena baino txikiagoa da.

Iturria: Udalmap


Gazteen, hau da 16 eta 24 urte bitartean dituztenen tasari erreparatuz, ikus dezakegu EAEko tasaren azpitik kokatzen dela, nahiz eta gazteen okupazio-tasa ia ehuneko 5 puntu igo da azken urteetan. Adinekoen adin-tartean, okupazio-tasa Euskadiko tasa baino handiagoa da, eta kasu horretan ere nabarmen handitu da.

Adineraren araberako okupazio tasa (%)



Iturria: Udalmap

Gizarte Segurantzako afiliazio tasa sektoreka (2020)




Jarduera sektoreari dagokionez, eta gizarte segurantzako afiliaturiko pertsonen ehunekoa aztertuz, 2020.urtean %73a zerbitzu sektorean ari ziren lanean, %21a industrian eta %5a eraikuntzan. Lehen sektoreak okupatutako biztanleen %1a bakarrik okupatzen du.

Iturria: Udalmap


LAN-DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Kontratu-errotazio indizea 2,35koa zen 2020an, EAEko indizeen azpitik (2,92). Beraz, Zarautzen kontratuen txandakatzea txikiagoa da, eta horrek esan nahi du urtean zehar pertsona bakoitzak kontratu gutxiago sinatzen dituela; beraz, horien lan-egonkortasuna zertxobait handiagoa da.



Iturria: Udalmap

Oso datu berririk ez dagoen arren, ikusten da **Zarauztik kanpo lan egiten duten langileen kopuruak gora egin duela azken urteetan**, 2016an 16 urtetik gorako langileen % 60k baino gehiagok lan egin baitute.




Iturria: Udalmap

Langabezia

Langabeziari dagokionez, Lanbidek emandako datuen arabera, Zarauzko langabezia-tasa Gipuzkoako eta EAEko tasen azpitik dago. 2020an, Zarauzko langabezia-tasa % 6,47 zen, EAEkoa baino txikiagoa (% 9,24) eta Gipuzkoakoa baino txikiagoa (% 7,58).


Langabezia-tasaren bilakaera aztertuta, ikusten da 2020an tasa hori 2016 eta 2017ko mailetara igo dela. Langabezia-tasa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

LAN-DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



Iturria: Lanbide

2020an erregistratutako iraupen luzeko langabeak (urtebete baino gehiago) biztanleria aktiboaren % 2,65 ziren. Zarauzko iraupen luzeko langabeen ehunekoa EAEkoa baino txikiagoa da (% 4,83). Iraupen luzeko emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da.



Iturria: Lanbide

Lanbideren arabera, Zarauzko enplegu-eskatzailen profila 2020an ondorengoa da: **DBHko titulurik gabeko 45 urte baino gehiagoko emakumea.**

Adina	%	Generoa	%	Kop.	Ikasketa maila	%
<20	% 2,45	Emakumeak	% 54,08	523	Lehen mailakoak osatu gabe	% 4,75
20tik 24ra	% 6,72	Gizonak	% 45,92	444	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, titulurik gabe	% 33,62
25etik 29ra	% 10,65				Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituluduna	% 23,39
30tik 44ra	% 29,99				Batxilergoa	% 10,96
>45	% 50,16				Erdi-mailako LH	% 9,14
					Goi-mailako LH	% 14,98
					Erdi mailako unibertsitarioak	% 4,02

Iturria: Lanbide

Enpresak eta kalitatezko enpleguak sustatzeko programak eta zerbitzuak

Hori guztia kontuan hartuz, Urola Kostako Udal Elkarteak duen helburuetako bat da, herritarren ongizatea bermatzea, kalitatezko enpleguak sustatzea, negozio berriak irekitzea eta horiekin batera, eskualdeko enpresen lehiakortasuna indartzea eta enpleguari eutsi eta lanpostuak sortzea.

Horri erantzuteko, eskualdeko enpresa eta pertsonekin prestakuntza, aholkularitza, laguntza teknikoa eta gaitasunen garapena lantzen da, besteak beste.

Era berean, herritar nahiz enpresetan lanean ari diren pertsonen prestakuntza eta gaitasun maila areagotzen ere ahaleginak egiten dihardu Urola Kostak. Pertsonen ezagutza teknikoak egokitzen, hobetzen eta ahalbidetzen saiatzeaz gain, pertsonak lanpostuetara eta enpresaren antolakuntzara egokitzea da helburua.

Honekin guztiarekin Urola Kostako Udal Elkartearen egitekoa tokiko garapenean oinarritzen da, eskualdearen lurralde oreka bat lortze aldera; eskualde izaera bat lortze aldera, baina era berean, herri bakoitzak duen identitate eta ezberdintasunak kontuan hartuta. Tokiko eragile diren unetik, enpresengandik eta herritarrengandik hurbil egon behar du, eskualde oreka eta bertako herritarren ongizatera lagunduko duten proiektuak bultzatuz.

Eskualdean herritarren ongizatea eta kalitatezko enplegua lortzea bermatzeko Urola Kostako Garapen Agentziaren bidez, enplegu arloan, ondorengo zerbitzuak, programak eta egitasmoak eskaintzen dira:

- ZERBITZU TRINKOAK: Herritarren ongizatea bermatzeko helburua dutenak:
 - Lan arloan **laguntza pertsonalizatua** eskaintzen da ikuspuntu integral eta sistemikotik. Era berean, **enpresen pertsonal beharrak** identifikatzen, sustatzen eta kudeatzen dira eta. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzailea da.
 - Eskualdeko enpresen beharrak erantzuteko enplegatze **agentzia/lan poltsa zerbitzua** eskaintzen da eta herritarrak lan eskaintzetan parte hartzeko eskaintzen kudeaketa egiten da.
 - Enplegu **informazio zerbitzua online**.
- PROGRAMA ZEHATZAK: Kalitatezko Enplegua sustatzearekin erlazio dutenak. Helburua da talentu berria sortu, erakarri eta mantentzea eta enpresetan beharren arabera pertsonen gaitasunen garatzeko egitasmoak aurrera eramatea. Horiek, eskualdeko lan ildo estrategiekin lerrokatuta doaz:
 - **Eraldaketa digitala:** Eraldaketa digitala, negozioen kudeaketa errotik aldatzen ari da, lehiakortasuna hobetzeko aukera berriak sortuz. Pertsonak dira erakundearen lehiakortasunean giltzarri, eta horien gaitasunak lantzea eta garatzea ezinbestekoa dira eraldaketa digitala modu eraginkorrean gauzatzeko.
 - **Eraldaketa demografikoa:** Trantsizio demografiko nabarmenaren aurrean, inpaktu sozial eta ekonomikoa integratzen duten estrategiak gauzatzerakoan gakoak dira, ongizatea, autonomia, berdintasuna eta aniztasuna areagotzea.
 - **Eraldaketa klimatikoa:** Helburu nagusizat hartuta klima aldaketaren aurka borrokatzea eta haren ondorioak arintzea, egiten diren ekimenetan, uneoro zuzenean edo zeharlerro modura lan ildo hau aintzat hartzen da.
 - **Urola Kostako eskualdeko baliabide endogenoak aprobetxatzea:** Eskualdeko tokiko izaera eta baliabide endogenoak bultzatzeko gai diren proiektu edo egitasmoak lantzea. Besteak beste honakoak: Ekonomia urdina, sektore tradizionalen eraldaketa, turismo jasangarria...

- KOMPETENZIA PROFESIONALEN ESKOLA:
 - **45+ INDARTZEN:** 45 urtetik gorako pertsonen lan munduan txertatzeko ahalduz eta baliabideak erraztea
 - **EMA+ INDARTZEN:** Emakumeen lan munduan txertatzeko ahalduz eta baliabideak erraztea aukera berdintasuna sustatzeko.
 - **IZAN BE DIGITAL:** Egun merkatuak eskatzen dituen gaitasun digitalen inguruko kompetentziak
 - **HAZILAN:** Goi mailako perfila duten 20-44 urte bitarteko gazteen lan mundurako bidea erraztea (Europako Gizarte Funtsa)
 - **UK ENPLEGU MAHAIA:** Eskualdean, ekonomiaren inguruan lan egiten duten eragileekin kooperazioan, proiektuak diseinatu, planifikatu eta exekutatzeko mahaia sortzen ari da.
 - **STAI:** Enpresetan kalitatezko lanpostuak lantzeko edota lortzeko, beharrezkoa den lan testuinguru eraikitzailea sortzeko diagnostia eta eskuhartzea.
 - **ITSAS KIROL POLOA:** Itsasoa motor ekonomiko gisa ulertuta, eskualdeko baliabide endogeno bezala, enpleguaren sorrerarako aukera anitzak dituen ekosistema bat da.
 - **SILVER:** Adinean aurrera egiten duten pertsonen kopurua areagotzen ari dela kontuan hartuta, eskualdean, dauden zerbitzuak nahiz sortu daitezkeenak identifikatzea da gakoetako da.
 - **ADIMEN ARTIFIZIALA:** Nazio mailan indarrean dagoen estrategia izanik, eskualdean, Adimen Artifizialaren oinarriak ezarriko dituen ekosistema baten garapena lantzen ari da Udal Elkarteak. Eskualdeko LHko zentro guztiekin akordioa sinatuta du Udal Elkarteak, ekosistema horretan aurrera egiteko

EKIMEN ESANGURATSUAK

- Urola Kostako Udal Elkarteak **enplegua sustatzeko egiten dituen ekimenak**, zerbitzu trinkoak eta programa zehatzak.
- **VICE ereduan oinarritutako Turismo Plan estrategikoa**, zeina aitzindaria izan zen. Eredu honek tokiko ohitura eta kultura kontuan hartzen eta balioesten dituen turismo-eredua da.
- **Zarautzko Turismo bulegoak Kode Etikoa** definitu du, zeinetan 8 printzipio nagusi zehazten diren:



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Herria ekonomikoki dibertsoa da, denetarik pixka bat dago (industria handirik ez, baina bai komertzio txiki asko, turismoa...), eta ekonomia beheraldietatik erraz ateratzen da aurrera, eta horrek kalitate posibilitateak ematen ditu.
- Industria garapen txikia du (eta gero eta txikiagoa).
- Lan sorkuntza ekiteko Udaleko tramiteak zailak dira (arautegi, epeak,...)
- Zarautzek turismoari gehiegi begiratzen dio; kalteak ere badakartza, adibidez, jarduera turistikoetako soldata eskasak.

- Eredu turistikoak dakartzan onura eta kosteak (sozialak eta ekonomikoak) herritarrekin ebaluatu beharko liratekeela aipatu da eta garapen ekonomikoaren orekatuago bat ahalbidetu.
- Lan duina ez da zertan joan "hazkunde ekonomikoarekin batera. Bereziki 3. sektorean, nagusiki turismoan, sortzen den enplegua ez da duina.
- Ostalaritzako zerbitzuaren kalitatea hobetu behar da, zerbitzuaren kalitateari buruzko prestakuntza falta da.
- Zarautzen bertan lan egiteko aukera gutxi, jende asko atera behar du herritik lan egiteko. Horrek lotarako herri bihurtzea eragingo du.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Lanaren sustapena:

Udal Elkarteak, ondorengo urteetan, merkatuak izango dituen joerak aztertu ditu eta etengabe dago begirada etorkizun hurbileko merkatuan jartzen. Horren baitan, landuko diren ekimenek ondorengo lan ildo estrategikoak aintzat hartuko dituzte:

- **Eraldaketa digitala**, pertsonak erakundearen lehiakortasunaren giltzarri direla kontuan hartuz, beharrezkoa izango da pertsonen gaitasunak lantzea eta garatzea eraldaketa digitala modu eraginkorrean gauzatzeko,
- **Eraldaketa demografikoa**: Balio erantsiko irtenbide partekatuak sustatzea trantsizio demografikoaren erronka sozial eta ekonomikoari aurre egiteko; pertsonen zahartze-prozesua kontuan hartzen dutenak; inpaktu soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa integratzen dituztenak gizartearen ongizatea, autonomia, berdintasuna eta aniztasuna areagotzeko.
- **Eraldaketa klimatikoa**: Garapen jasangarriko eredu ekonomiko eta sozial batera aldatzea, helburu nagusizat hartuta klima aldaketaren aurka borrokatzea eta haren ondorioak arintzea.
- **Urola Kostako eskualdeko baliabide endogenoak aprobetxatzea**: Eskualdeko tokiko izaera eta baliabide endogenoak bultzatzeko gai diren proiektu edo egitasmoak.

Turismo jasangarria:

- **Turismo jasangarria**: Turismo jasangarriko ereduak honakoak ezinbesteko izango ditu, zeintzuk elkarrekin erlazionatuak egongo dire, bisitatzen gaituzten pertsonen esperientzia hobetzeko eta gizartearen zati batek turismoari buruz duen pertzepzioa hobetzeko: iraunkortasun ekonomikoa, tokiko komunitatea, ingurune naturala eta kulturala, eta bisitariak. Helmuga espezializatu bat, ondo egiten dakien gauzetara bideratua dagoena eta gainerako helmugetatik bereizten duena.
- VICE turismo eredutik haratago joan eta **Biosphere ziurtagiria** lortzeko pausoak eman, zeinak turismo jasangarria sustatzea duen helburu. Eskualde mailan lantzea da helburua.
- **Turismoarekin jasangarritasun soziala sustatzea** da erronketako bat, beste turismo eredu bat erakarriz.